

Euskal AEko autonomia-administrazioen gastu arrunta %8,7 gehitu zen 2003an


Finantza-zor bizia BPGdaren %6,8an kokatu zen

2003ko ekitaldian, Euskadiko Autonomia-Administrazioen (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udal-administrazioak, euren erakunde autonomoekin eta udalez gaindiko erakundeekin batera) gastu arrunta %8,7 hazi zen eta 8.885,9 milioi eurora iritsi zen, Eustatek emandako datuen arabera. Sarrera arruntek, aldiz, %4,5eko urteko bilakaera-tasa apalagoa izan zuten eta 10.605,9 milioira iritsi ziren.

Ondorioz, eragiketa arrunten saldoa (sarrera arruntak ken gastu arruntak) %12,8 murriztu zen aurreko urtearen aldean, 2.002ko 1.972 milioitik 2003ko 1.720 milioira.

Zerga-sarrerek sarrera arrunten %90,5 hartu zuten eta horien artean BEZa (%10,3) eta Bestelako zergak (%6,7) nabarmendu ziren lortu zuten urteko bilakaera-tasagatik. PFEZ eta Zerga Bereziak %3,9 eta %3,5 hazi ziren, hurrenez hurren; eta sozietate-zergeren sarrerak %0,6. Udal-zergak %3,6 murriztu ziren eta Bestelako sarrera arruntak %2,4.

2003ko zerga-sarreraren banaketa. %



Iturria: EUSTAT

Gastu arruntaren atalean, langileria-gastuak %5,9 hazi ziren, aurreko ekitaldian (%5,4) baino puntu erdi gehiago. Transferentzia arruntek, hots, diru-laguntzek eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzek %10,0ko hazkundea metatu zuten. Bestelako gastu arruntek, funtzionamendu-gastuek %9,4ko urteko progresio-tasa izan zuten, eta 4. eta 2. kapituluaren artean %8,7ra igo zuten guztizko gastu arruntaren bilakaera.

Kapital-sarrerak aurreko urtearen aldean %20,6 murriztu eta 246,1 milioira iritsi ziren, eta Kapital-gastuak (inbertsioak gehi kapital-transferentziak) 1.957,5 milioira igo ziren (%+0,6). Kapital-eragiketen saldo negatibo horrek ia guztiz hartu zuen eragiketa arrunten saldo positiboa (1.720 milioi).

Eragiketa arrunten eta kapital-eragiketen bilakaera horren ondorioz, aurrekontu-superabit ez-finantzarioa 2002ko 336,5 milioitik 2003ko 8,4 milioira jaitsi zen.

Euskadiko Autonomia Administrazioen likidazio finkatua. 2002-2003

mila euro	2.002	2.003	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	11.186.659	11.393.778	1,9%
Eragiketa Arruntak	10.149.222	10.605.954	4,5%
-Zerga- sarrerak	9.121.014	9.602.300	5,3%
PFEZ	2.908.041	3.022.246	3,9%
Sozietate-zerga	1.035.203	1.041.402	0,6%
BEZ	2.962.543	3.266.787	10,3%
Zerga bereziak	1.168.312	1.208.827	3,5%
Udal-zergak	522.953	503.982	-3,6%
Bestelako Zergak	523.962	559.056	6,7%
-Bestelako sarrera arruntak	1.028.208	1.003.654	-2,4%
Kapital-eragiketak	309.896	246.102	-20,6%
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	10.459.118	10.852.056	3,8%
Finantza-eragiketak	727.541	541.722	-25,5%
GASTUAK GUZTIRA	10.822.617	11.433.152	5,6%
Eragiketa arruntak	8.177.199	8.885.968	8,7%
Langileria-gastuak	2.293.632	2.429.192	5,9%
Transferentzia arruntak	2.973.654	3.271.957	10,0%
Bestelako gastu arruntak	2.909.913	3.184.819	9,4%
Inbertsioak eta kapital-eragiketak	1.945.359	1.957.593	0,6%
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	10.122.558	10.843.561	7,1%
Finantza-eragiketak	700.059	589.591	-15,8%
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.972.023	1.719.986	-12,8%
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANZARIOA	336.560	8.495	-97,5%

Iturria: EUSTAT

Zor biziak 2001ean izan zuen kotarik baxuena, 2.776,4 milioikoa; 2002an 3.118,1 milioira igo zen; eta 2003ko ekitaldian, 3.349,0 milioira iritsi zen, azken bi urte horietan BPGdaren portzentajea %6,8 inguruan egonkor mantendu zen arren. 2003ko ekitaldian 276 milioiko aurreko zorra amortizatu zen eta 516 milioiko zor berria egin zen.

EUSKADIKO AUTONOMIA-ADMINISTRAZIOEN DATU BATERATUAK. 2003

mila euro

	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	10.605.954	6.019.458	1.742.682	5.328.298	3.508.924
GASTU ARRUNTAK	8.885.968	5.259.842	1.642.852	4.897.913	3.078.769
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.719.986	759.616	99.830	430.385	430.155
KAPITAL SARRERAK	246.102	110.446	62.538	130.950	122.121
KAPITAL GASTUAK	1.957.593	813.881	170.042	618.917	534.706
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZIARIOA	8.495	56.181	-7.674	-57.582	17.570

ZOR BIZIA (Amortizatzeke 03-12-31)	3.349.086	1.805.121	122.145	1.007.376	414.444
---	-----------	-----------	---------	-----------	---------

Iturria: EUSTAT

Euskal AEko autonomia-administrazioetako langileak 59.378 izan ziren 2003an, hots, aurreko urteko 58.718 langileak baino %1,1 gehiago. Merkataritza-sozietateetako eta zuzenbide pribatuko entitate publikoetako langileak ere kontatuz gero, 88.482 langilera iritsi ziren 2003an, 2002an baino %1,0 gehiago. Enplegu-maila horrek Euskal AEko guztizko enpleguaren %9,7 hartu zuen 2003an.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose M^a Agirre Eskisabel

Tlf:+34-945-01 75 80 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp